



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Aitor Mazo:
«Beti izan nahi izan dut aktore»




Justugune ⇄ Santutxuko jaiak ⇄ Txatunga Bembé ⇄ eta askoz gehiago...

Adierazpen askatasuna!

Berton egiten dugunok Egin egunkaria eta Egin Irratia ixteko erabakiaren ostean geure elkartasuna adierazi gura diegu bertako langile eta kide guztiei. Honekin batera ardura eta kezka handia agertu gura dugu honelako gertakarien aurrean. Izan ere, azkenotan euskal kulturaren kontra egiten izan diren erasoez

gainera, oraingo honetan adierazpen askatasuna ere urratu da, hainbat euskal herritarren ahotsa ixilaraziaz.



Euskal kulturarentzat eta Euskal Herriko prentsarentzat errespetua eta askatasuna eskatzen dugu.

berton



Bilboko jaietan
ondo pasau euskaraz!

geuk ere lagunduko dizugu



OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA

Gure auzoan ekinean
*Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak...eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu*

Euskaraz bizi!

Telefonoa: 4121877

AURKIBIDEA

4 ⇨ Beitu!
GAZI-GOZOAK

5 ⇨ Begia

6 ⇨ Bertoratuak
Kolaborazioak

8 ⇨ MAHATSORRIA
JUSTUKO ERMITEA
BEGOÑA TA EUSKAREA

10 ⇨ BATU GURERA!
TXATUNGA BEMBE

12 ⇨ BIBA ALEGRANTZIE!
SANTUTXUKO JAIK 98

15 ⇨ BAKARKA
AITOR MAZO

18 ⇨ MAHATSBERRIAK

20 ⇨ BERTON DUGU!
OPORRALDI MERKE BATEKO
PASADIZOAK

23 ⇨ BIDEAK
KULTURBERRIAK

25 ⇨ BEJONDEIZULA!
FESTARIK FESTA

26 ⇨ BURUHAUSTEAK
DENBORAPASAK

27 ⇨ BERTSOTAN

berton

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkartea.

ERREDAKZIOA:

Aita Pernet 9
48004 Bilbo
Telefonoa: 94 473 54 48
E-posta: berton@mail.com

ZUZENDARIA:

Aitziber Laskibar.

ERREDAKZIOA:

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi
Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione
Letamendia eta Itxaso Perez.

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona, Nerea Ribas eta Urko Gorritxo.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Joseba Barrenetxea eta Benito Fiz.

KOLABORATZAILEAK:

Joseba Zelaia, Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza,
Igor Martin de Vidales, Santutxuko Bertso
Eskola, Joseba Macias eta Etor Salazar.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA :

Koldo Urrutikoetxea.

LEGE GORDAILUA:

BI-85-98

ALE KOPURUA:

1000

FOTOMEKANIKA:

Argia S.L.

Inprenta:

Antza inprimategia.

Aupa Mahatsorriok!

Udie etor da, eta bakazinoak be bai. Sasoie ixen da, bai. Baie, baten batek bakazionook kakaztu gure ixen doskuz. Ze, zer ein eta Egin ixi ein doskue. Hau de hau ixetekoa, gero! Oin iguel geuri bere esangoskue aber Bertonen ze esaten dozue ze baten bateri gustetan ez bajako, adios! Ixi eta denak barrure! Ba, nik esangot guredotena, ze orixe esaten ixen dot oin arte eta oin etxat etorko Garzon bat esaten zer esan bier doten, karajo! Eta ganera, guk dirue nori emoten dotsegun-eta problemarik ez dekou, ze dirurik ez dekou eta ezin dotsegu inori emon, asike hortik ez doskue atrapauko. Ta esaten douneagaittik pe eztao problemarik, ze Begoñeko euskerie ez dakidxen lez ez daurie jakingo ze esan doun. Ta jakinezkero be, ze? Total, barrure sartu gure bagaittuez, bardin sartuko gaittuez, ze antza, hamen inor barrure sartuteko asko ez da bier, ta peridikuek eta radidxoak ixiteko ondiñokarren gitxiao. Asike, ze ingou ba?

Ba, horixe kontue, agostuen gaaz ja, eta bertonekook pe bakaziñotan goaz urrire arte, ondo merezidute dekouz te. Zuek ez dakixue zelango bierra dan hau atatie! Da bakazioetan gaozen lez eingou parrandie batzuek ta deskantsau bestiek. Parrandie gure dabenantzako hor dekou Justugune, han Tetuanen, egune pasetako modu elegantie. Ze amen Matzerridxen basoa eta mendidxe paraje dekouz eta festak ez douz beti eingo etxeartien, ez? Ta ganera, han batuten garez ingeruko euskaldunok asko. Ta pasau be ondo pasetan da. Beraz, ordureko horra kanpora eskapeu ez badozue, akordau agostuen 8en Tetuaneko landetan ondo pasetako modue dekozuela. Hala, ni banoa ta ondo pasau.

Azken Mahatsorrianoa
(barruen eztaoana)

E
R
T
O
K
O
A
K

kolaborazioak

Kostaldetik Mahatserrira

Unai Cuevas

Itsasoari begira jarri eta erabateko lasaitasuna nabaritzen da. Kaiopak entzuten dira itsasoaren azalean uhinak agertarazten diren bitartean. Urrunean, itsasontzi batzuk ikusten dira itsasoa zeharkatzen dutenean uzten duten bide zuriari esker. Eta urrunago oraindik hodeiertza ikusten da. Marra zuzena, itsasoa eta zerua banatzen dituena, eta beti ere leku berdinean mantentzen dena. Itsasoaren haize freskoak agerpena egin du kresalaren usaina berarekin ekarriaz. Ingurune urdin, zabal eta heze hau irudimenaren bidez bakarrik goza daiteke Mahatserrian. Etxe pilatuek, jende ugariak eta kotxeen zaratek momentu honetan sentitzen dudana bakea hausten dute. Kostaldean



gauzak beste era batera ikusi eta bizi dira. Itsaso erraldoiak eta bere ertzetan handitzen den mendiak bizitzaren beste ikuspuntu bat ematen dute. Batzuentzat, oporren eta aisialdiaren baliokideak dira; beste batzuentzat, aldiz, ohiko bizitzaren hornitze elementuak dira. Baina hala eta guztiz ere, Mahatserrira eta leku masifikatuekin parekatuz, munduaz jabetzeko beste modu bat eskaintzen dute. Itsasoa, kaiopak, kresala, haize freskoa, ikusmuga, mendia... nire herrirka. Hau guztia, Mahatserrirako bizitzatik at dagoen bizitzaren beste aldea da niretzat. Bai horixe! Eta biak aprobetxatu behar ditut. Bakoitza bere garaian. Mahatserrian bizi arren nire baitan zerbaitek azaldutako parajearekin.

Inkisizio zahar berria

Joseba Macias


Egin eta Egin irratia ixtea, 1998ko uztailaren 15ean, azken hamarkadetan gure herrian izan den gertakari larrienetakoa da. Herri mugimenduaren ikur izan diren bi hedabide legedekretu bidez desagertarazteak, argi erakusten du zein den Espainiako gobernuaren eta haren irratitertulikiakideen benetako borondate demokratizatzailea. Nabarmen politikoa den neurri honek, Orain SAko administrazio kontseiluko zortzi atxilotuen aurkako us-tezko arrazoi inkriminatorietatik urrun, adierazpide barik utzi ditu milaka euskal herritar. Koinzidentzia bitxi askok ulertarazten digute ekintza poliziako-judizial hau disidentziarentzako zigorra dela: egunaren hautaketa (uztailean, hedabideetan informazio kopuru txikiagoa dabilenean eta herri mugimenduan erlaxamendu handiagoa denean, GAL auzia delakoaren lehenengo epai- ketaren amaiera...), erantzun sozialaren berehalako manipulazio mediatikoa, duela aste batzuk PP eta PSOEko buruzagitzek Madrilen egin zuten bilera, Felipe Gonzalezek ETaren su etena tranpa baino ez zela kritikatuaz egindako



adierazpenak, Garzon bezalako super-epailea operazio-buru izendatzea... Elementu hauek guztiek zalantza ilunez betetzen dute berrehun langile baino gehiago lanik gabe utzi duen neurri kriminalizatzailea. Baina gertakari esanguratsuago bat ere badago Euskal Herriko giza errealitate konplexuaren ikuspegitik: desagertu diren bi hedabideok historikoki hedabide handiek baztertzan izan dituzten hainbat herri mugimenduren ahotsa izan dira. Horregatik da Egin eta Egin irratia euskal herri mugimenduaren kontra inoizko erasorik larriena. Honelako uneotan gure hedabideen defentsaren erronka, txikiak izan arren, baina aldizkari honek legez gure mundu ikuskera agertzen duten hedabideak, bizi garela esateko modurik onena da, batzuen gogoz kontra ere. Eta oso zaila da batzuen gogoz kontra bada ere, aurrera doan herri baten ahotsa indarrez isilaraztea. Bere istorio eta kontraesan handi eta txikiekin. Baina iraupena bere eskuetan duela jakitun. Gure auzoko horma batean pintada batek dioen legez: telebista sasoiz amatatu eta begiak zabaltzen dakien herria.

1998ko uztaila-abuztua. 6. zenbakia.

Zzure publizitatea



3 MODULO
6.600

MODULO 1
2.220

4 MODULO
8.800

2 MODULO
4.400

ORRIALDE OSOA,
KONTRAZALA,
BESTE
MODULAZIO
BATZUK, EDO
INFORMAZIO
GEHIAGORAKO
94 473 54 48

6 MODULO
ORRIALDE ERDIA
13.200

bertin

KOMERTZIALA BEHAR DUGU

Interesatzen bazaizu jarri kontaktuan gurekin, telefono honetan:

94 473 54 48

MAHATS ORRIA

Mahatserria zana, dana eta izango dana

Justuko ermitea eta Justu(e)guneko erromeria

Aintzina aintzinakoa ziren Justu izeneko basiliza eta ondoko baserria eta ospe handiko erromeria egiten zan bertan abuztuaren 6an. 1941 urtean bota zinduezan biak Ospitaleko Tapia izeneko edifizio barria egiteko. Ereikin honek 40 urte eskas funtzionatu izan dau eta gaur egun hondatuta dago.

↳ **Koldo Urrutikoetxea**

BASELEIZEA

Desagertuta dago gaur egun Justuren Basiliza eta Justibaso izeneko parajearen egoan kokatuta, gaur egun Santamarinako Sanatorioko Tapia pabilioi zarra dagoen lekuan.

Baseliza eta ondoko Justu baserriak, etxalde bat osatzen eben, bata bestearen ondoan egozen horma baten bidez lotuta, eta antza, antzina baselizaren jagolea bizi zen etxe horretan. Baselizan, beste hainbat elizetan egiten zen moduen, lur emoten zen.

Enterramendu honeen ohiturak edo ermitea hor ereikitzea zer ikusirik euki daikee berrehun metro gorago aurkitu den orain dala 2000 urteko Iru-mugarrieta trikuharriagaz edo gure historiaurreko ohiturakaz?

DATU HISTORIKO BATZUK

Gurutz Arregiren Bizkaiko Baselizen Liburuak historiari buruz hartutako datuen arabera, Justuren basiliza, antzina-antzinakoa ei zan, bere ereikuntza mota kontutan hartuten bada, adituen ustez.



Etxarte bazerri barria.



Santa Marinako Sanatorioa, hemen egoan Justuko ermitea.

Labairuk, *Historia de Bizcayan*, 1547 urtean egon zen auzi bateri buruz, datu batzuk emoten dauz. Auzi hau, eleiztarrak eta auzokoak alde batetik eta Gregorio Gómez de Loizaga, Begoñako Andra Mariko Patroiaren artean sortu zan, bai basiliza bera, ondoko basoak eta bertako tresnen jabegoa norenak ziran deliberatzeko.

Bizkaiko Epaille Nagusiaren sententziaz, 1556ko apirilaren 4an, basiliza, ondoko etxea, soloa eta basoak, Begoñako Andra Mari eleizaren gehigarriak izan zirela eta horrela jagon eta administratu behar zirela ebatzi eben.

Ermita ondoko hariztiari buruz, ez zan bete agindu hau eta 1764. urtean beste auzi baten datuak dagoz. Sagasti bat egoan, antza, baselizaren ondoan.

1818. urtean Kalagurriko gotzainak basiliza ikuskatu ondoren, zera idatzi eben «...egoera nazkagarrian aurkitu dugu, atea giltz barik, teilatu gehiena teila barik...baselizako punta batean, ondoko etxeko oilategi edo kortarako ate bat da-goela....» eta ondoren hile biren buruan konpondu edo bota egin behar zala, esaten eben.

1998ko uztaila-abuztua. 6. zenbakia.



Justu eta Pastor sainduen XVII. mendeko irudiak

GERRA OSTEA

1941 urteko urtarrilean Briñas Ospitala handitu behar zala eta bota eben basiliza eta Justu baserria, eta baita gaur egun Ospital barria dagoen lekuko Mikoleta baserria.

Baserri honeen orde, bertako etxeetakoek gaur egun Santamarinako kamino ondoan dagozen, Etxarte eta Mikoleta baserriak altxatu ebezan barriro, tartean etxeetako eta baselizako arriak ere erabiliz. Erretabloaren barririk ez daukagu baina XVII. mendekoak diren Justu eta Pastor umeen irudien ardura elizak hartu eban Otxarkoagako eliza egin zanean eta zarbarritu egin dira aurten Enkarnaziño Plazako Eleiz Museoan. Joserra Valverde Otxarkoagako abadeak «San Justo y Pastor elizan» uzteko asmoa daukiela esan deusku.

Baselizako hilobiak, Begoñako kanposantura eroan ziren.

ERROMERIA

Abuztuaren 6an ospatzen zan Justugune eta Bizkaiko beste hainbat ermitatan egiten zen moduan, meza ostein egun osoko erromeria egiten zan Landazabal baserri ondoko landan, gaur egun txaleta dagoen lekuan.

Ospe handiko eguna zan eta bertara, Begoña, Zamudio, Etxebarri eta beste herrietako jendea etorten zen. Egun osoa emoten zan bertan iluntzeraino eta batzuk astoz ere etorten ziren, umeak eta bazkaria ekarteko.

Baseliza bota zanean 1941. urtean, erromeria galduten joan zan, nahiz eta ospatzen segidu beste leku batzutan, Tetuanen, Lozoñon eta Larratundun ere bai guztiz galdu arte.

1995. urtean eta Otxarkoagako Euskal Txokoari eta hainbat euskalzaleri esker berreskuratu egin da barriro ere eta urte askotarako izan daitela espero dogu.

Begoña ta euskerea

↳ **E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza eta I. Martín de Vidales**

Oporrak guri bere etorri jatorkuz, oraingo honetan baketan itziko deusuegu. Baina irailera artean baino ez, zeuok gura badozue orduan, gogo barrizatuta, atzera etorriko gatxatzuez eta ekingo deusuegu Begoñako berbetea eta altxor kulturala astinduteari eta gogotara ekarteari.

Oporren sasoiaren bete betean gagozenez gero, ondo dago aitzinako beharrakaz gomutatea, beharrik egingo ez doguna aginduten dogun arren.

Bilbo jauntxoaren huria izan ei bada bere, ezin ukatu lei jauntxoaren euskari behargin xumeak izan direana. Beharginak eta behar egiteko erak itzel aldatu dira denboraren joan-etorrian; behar batzuk sortu eta arteragokoak desagertu arazo dituez.

Desagertu direan horreetariko bategaz gomuta eragin gura deusuegu. Ez dakigu beharlekuaren maila emon leikion, baina nahikora bitxia izan dan legez, ekarriko dogu bertora.

Etxeetan gugaz lagun egiten daben txakur eta katuari buztana ebagiteko jasa zabal ibili da, gero eurok aldestariotxu ibiltzen direan arren.

Ez dakigu ziur zer dala ta; batzuk, hazi eziteko dala diño, beste batzuk, otsanduteko, bestetzuk, oster, miseria kenduteko. Bertsino nahia! Zelangura dan, ziur dakiguna egin izana da. Bada, Bilbo Zaharrean ba ei egoan horretan jarduten eban sasi profesional bat, liberatu bat esan geinke gaur egunean. Alde Zaharreko txakur eta katu asko hareri eroaten jakozan eta berak bere egitekoaren truke dirua kobraten eban.

Honagino, zurtzekorik ez, buztanak ebagi eta dirua alztatu, negozio bat. Erari bagagokoz baina, aiko originala gure gizona!

Zapi bat pizti koitaduaren buztanean amarratu eta haginka eginda ebagiten ei eutsen. Hori bai, zoldu ez eikioen surtako hautsa ipinten ei eutsen; holan, bide batez edo, odol jariora eten egiten jaken, odolduteko arrisku barik. Dinoe ze buztanaren barruko firutxo bat bere ataraten eutsela.

Txakur ausigizaillearen pasadizu honegaz agur dinosuegu bueltara artean. A! eta holan bazan sartu gaitezala antaparan eta agertu gaitezala Txurdinago presan.

Txatunga Bembe

Afro-amerikar perkusioa Mahatserrian



Boluetako txoko batean afroamerikar gunetako bariante erritmiko ezbardinak ikertzen dituen taldea dugu Txatunga Bembe. Hamaika pertsonak osatzen dute perkusio talde hau eta astean zehar bi aldiz entsaiatzen badute ere, asteburuetan hainbat ordu sartzen dituzte erritmo berriak ikasiz. Batzuetan ahotsak landuz, besteetan instrumentuak... entsaio orokorrak prestatzen dituzte.

Arrate Diez

Ikuskizunak jai kutsua dauka, eta kaleko giroetara dago zuzendua: auzo eta herrietako kalejirak, konpartsen jeitsiera... Ikuskizun estatikoa ere eskaintzen dute eszenatokian joz.

Euren asmoa musikarekin disfrutatzeaz gain, beste kulturetako musika doinuak lantzea da. Ez da talde itxia, etengabe ari dira kurtsiloak prestatzen eta jasotzen, honez gain handik hona dabilta instrumentu berriak topatzen.



Herralde desberdinetako musikari eta irakasleekin kontaktuan egoten dira euren ikerkuntza eta musika doinuak aberastuz. Adibidez, ikastaroak antolatu dituzte Afrika, Kuba eta Brasilgo musikariekin.

Txatunga Bembe duen trabarik haundiena bere musika jatorriarekiko urruntasuna da, bere dokumentazio eta ikerketa lanek, tresna berrien erosketak, tresnak mantentzeak eta taldearen iraupenak diru asko eskatzen baitie.

Kurtsiloetako konzentrazio edo topaguneak ere burutu dira Ugaon, Legazpin, Deustuko Gazte lokalari, Zumarragan... esperientzia musikalen elkartrakerako tokirik aproposenak izan direnak.


Euren helburua sormenerako bidea uzten duen base musikala izatea da, Afrikar sustraia duen Amerikako musikaz baliatuz. Argitalpenak eta partiturak lortzeko Internet sarea ere erabiltzen dute mahatserritar hauek.

1998ko uztaila-abuztua. 6. zenbakia.

Santutxuko Jaiak

Eta aurtengoak ere joan dira. Beharbada, normaltasuna izango litzateke izendatzaile egokiena aurtengo Santutxuko jaiak berba egiteko. Batez ere igazkoen ostean. Eta normaltasuna ez dela albiste dakarte kazetaritza eskuliburuek. Baina normaltasunaren azpian bederatzi egun bizi ezkututzen dira. Hurbil gaitzen ahal dugun apurtxua jai giroan, datorren urtera arte agur egiteko.

Urtzi Urrutikoetxea, Argazkiak: Urko Gorritxo



Igazko arazoak baztertuta, ez zen gogorik falta aurtengoak hasteko, eta koadrilen bazkariaren ostean uztailaren 11n, zapatu iluntzean ekin zioten «ofizialki» jaiari, asko eta asko bazkaritik sekulako festa giroan murgilduta bazeuden ere.

Bederatzi egun zoro izan dira, asteburuetan lepo beteta eta astean zehar ustez egun lasaigoak izan arren, denoi labandu zaigu han hemenka parrandaren bat. Eta eguneko ekitaldiak ere indartu dira, umeen jolasak, koadrilen parte hartzea bultzatzeko ekimenak... Dena urte osoan zehar lanean dabiren Jai Batzordeari eta hau osatzen duten talde eta norbanakoei esker. Eta jaietan denok gure apurra eskainiz, dela txosnetan, dela parte hartzean, mozorrotzen edo irudimenak dakarren beste edozertan.







Ezin artikulatu batean bederatzi eguneko martxa bildu, egun indartsuago eta xuabegoak tartekatu dira, besteetan baino lasaiago ibili denik badago, jende gitxiago egon dela, eta beste askok eragozpenak baino, labur

gelditu zaizkiela pentsatuko dute. Azken domekan ohitura bihurtu den entzierro busak ez baitzuten denak etxera bidaldu. Batzuek gau osoko edariei makailau apurra ere gehitu baitzieten gau-pasaren erdian, eta bertan amaitu ez

balira jaiak, auskalo oraindik erretiratu ote ziren!

Ezin albo batera utzi bestelako eragozpenak ere. Nahiz eta hauen guztien gainetik, denon borondateari eta lan onari esker



jaiak aurrera egin, kexu da Jai Batzordea, urtez urte udaletik laguntza gitxiago ezeze arazoak ere gehiago direlako, oinarritzko azpiegiturari dagokionean batez be, komun publikoak e.a.

Baina kontuak kontu, mila ekitaldi, antzeppen, kontzertu eta dantzaldi, bertso saio, kirol bilkura eta batez ere, gu guztion partehartzeaz, beste



urte batez agur esan digute jaiak, denok lekua izan dugulakoan, bakoitzak bere eguna izan du, jaietan egon ez arren gurekin ditugunek barne, eta hurrengoan gehiago izango delakoan, aurrera begira, Justugunera, Bilboko jaietara... aprobeitza dezagun, uda oraindik luzea da eta!




DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean



Lier

(Santutxu)

«Tipo bat taberna baten atarian etzanda ikusi nuen kristoren mozkorrarekin eta anbulantzia bat agertu zen laguntza emateko.»



Juanjo

(Santutxu)

«Bat ere ez. Ez naiz orain arte jaietan egon eta agian gaur gauean zerbait ikus dezaket.»

Zein da jaietan ikusi edo egin duzun txorakeriarik handiena?



Maitane

(Santutxu)

«Jendea oso mozkortuta ibili da eta sekulako astakeriak ikusi ditut, horren artean goiz batean 40 autobusean jendea igon egin zan eta buelta bat emon eben ordaindu barik.»



Unai


(Begoña)

«Eskenatokira igotzea txistulari taldearekin jotzera.»

«Betidanik izan nahi izan dut antzezle»

Santutxutarra, Txurdinagan bizi da orain. Aktorea, telebistan, antzerkian eta zineman ibilitakoa. Aurpegi ezaguna duda barik, lanagatik nahiz auzoko saltsetatik. Aitor Mazo dugu Mahatserriko bazterretatik mundura famatu zaizkigunetako bat.

Arrate Diez, Argazkiak: Nerea Ribas



berton: Zein izan da zure karreraren ibilbidea? Nola hasi zinen antzerkigintzan?

Profesionalki Maskarada antzerki taldean hasi nintzen, orain dela hamabost bat urte. Nik antzerkia egiten nuen Santutxuko Ortzadar taldean, bertan kaleko antzerkia ere egiten genuen. Betidanik nahi

izan dut antzezle izan, baina gauzak nahiko txarto zeuden. Santutxuko Iluna Irratian programa pilotoak egiten aritu nintzen beste hiruzpalau pertsonarekin batera. Materiala biltzen genuen handik eta hemendik eta soinu ezberdinak egin... berton Maskaradako aktore bat ezagutu nuen nire

lankide zena, eta ordezkapen bat egiteko Maskaradan sartu nintzen. Beraz, lehenengo irratian hasi nintzen. Maskaradan lau urtez egon nintzen eta urte horiek artistikoki oparoak izan ziren, eta hortik beste zuzendari, aktore eta beste leku batzuk ezagutzera abiatu nintzen.

berton: Zer sail eta programa ezberdinetan hartu duzu parte?

Antzerkia, telebistako saioak eta zinea egin dut. Zineman azkenengo pelikula *Airbag* filmea izan da. Hamabi filme inguru egin ditut.

Telebistan, orain programa bat egiten hasi naiz Valenciako telebistan, *Poker de reyes* du izena. Antzezteko asko gustatzen zait, baina aurkeztea ere bai.

Bi urtez aritu naiz *Querido Maestro* saila egiten eta hainbat telesail ezberdin egin ditut bai ETBn bai Espainiako telebistetan: *El destino en sus manos*, *Los ladrones van a la oficina*, eta beste hainbat.

Antzerkian, Maskaradatik hasita beste hainbat taldeetan ibili naiz eta baita proiektu ezberdinetan ere. Orain konpainia bat daukat beste bi soziorekin, «Chirene» izeneko eta Espainian zehar antzezten dugu.

Torito Bravo antzezlanaren erdaraz egin arren, hainbat ditugu euskaraz eginda.

berton: Zer eragin izan du zure bizitzan telebistan agertzeak?

Profesionalki telebistan agertzeak lana ekarri dit, baita esperientzia eta aktore izateko posibilitate handiago bat.

Bestaldetik, nik neure burua artista normaltzat ikusten dut eta ez zait gustatzen oso famatua izatea.

Euskal Herrian aktoreen lana nahiko gutxi baloratuta dago.

berton: Zer gomendatuko zenioke aurkezle berriari, edo aurkezle izan nahi duenari?

Uste dut edonor izan litekeela aurkezle, nik ez daukat aholku handirik. Gauza asko dakizkit, oraindik arkezle batzuek ez dakizkitenak. Hala ere, funtsezko erregela batzuk gomendatuko nizkieke, nik maisuen falta ere izan dut eta akats asko egin ditut. Gaur egun oso maisu gutxi dago. Funtsezko gauzak erakutsita bakoitzak daki zer egin behar

duen gero, hala ere, asko dago ikasteko oraindik.


berton: Zer ezberdintasun nabaritu duzu Euskal Telebista eta beste telebisten artean? Zein duzu nahiago edo non egin duzu lan gustuen?

Nik Tele 5n oso gustura egin dut lan, normalean leku guztietan gustura egiten dut lan. Euskal Telebistarekin hainbat urtetan harremanetan egon gara eta laboralki ezer gutxi lortu dugun arren, konbenio bat sinatzeaz dago aktoreen inguruko kontuekin. Dena dela, Euskal Tele-


bistan atzerriko telebistetan baino gutxiago pagatzen zaie aktoreei. Euskal Herrian aktoreen lana nahiko gutxi baloratuta dago. Euskal herrian oso jende gutxi joaten da antzerkia ikustera, publikoa nahiko komertziala da... baina hau gertatzen da zinearekin eta artearekin ere.

berton: Zeintzuk dira zure ustez aurkezle onak izateko baldintzak?

Garrantzitsuena, nire ustez, argi hitz egitea da jendeak uler dezan.



1998ko uztaila-abuztua. 6. zenbakia.



Bestetik, alai edo sinpatikoa ere izan behar duzu eta kontuz ibili behar da azafatekin hanka traba ez egiteko.

berton: Zein izan da zure lanean aurkitu duzun oztoporik handiena?


Gauzak zure erara egitea da zailena, beti baitago norbait esaten dizuna zelako egoeretan lan egin behar duzun.

berton: Zelako harremana duzu zeure auzoarekin?

Lehen harreman oso estua nuen auzoarekin, Karmelo ikastolako lehenengo promoziokoa naiz, Gaztedi dantza taldean aritu naiz... oraindik badut erlazioa auzoarekin, baina ez garai batean eduki nuena.

berton: Jendeak kalean ikusten zaituenean agurrik edo komentariorik egiten dizu telebistan agertzen zarelako?

Nik neure burua artista normaltzat ikusten dut eta ez zait gustatzen oso famatua izatea.



Galdera laburrak

Definitu zeure burua hitz batean.

Deskontrolatua.

Aktore bat?

Tim Robins.

Amets bat?

Teatro handi batean aktuatzea.

Janari bat?

Txuleta patata frijituekin.

Oporretan nora joango zinateke?

Hondartzara.

Kolore bat?

Azula.

Abesti bat?

Tralara.

Hitz esanguratsu bat?

Pikutara.

Herri bat?

Lekeitio.

Hiri bat?

Bilbo.



MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Justugune 98



Zuberoko dantzariak iaiko Justugunean

Laugarren urtez Otxarkoagako Euskal Txokoak antolatuko du Justuguneko festa. Antzinako tradizioa berreskuratuz, Tetuaneko landan batuko dira aurten ere Otxarkoaga, Arbolantxa eta Mahatserri guztikoak euskal erromerian.


Jon Martinez Betanzos, «Petete»: Otxarkoagako Euskal Txokoko kidea.

Zelako jaia antolatu duzue aurten Justugune ospatzeko? Goizeko 11etan, nahi duenarentzat, mezarekin hasiko gara. Meza ondoren txokolatada eta trikixoa saioa izango dira. Hau, Goikoetxe baserri atarian egingo dugu. Ondoren Tetuane landara igoko gara eta ordubata inguruan Jon Maia, Oihane Enbeita eta Aritz Lopategik bertso saio bat eskeiniko dute. Orduki terdiak inguruan herri bazkaria izango da 900 pezetatan. Nahi duenak berriz, bazkaria etxetik eraman dezake; kontua, denok elka-

rekin bazkaltzea da. Ondoren mus txapelketa, herri jokuak eta kantua izango dira. Eta bederatzietan, Lotz taldeagaz erromeria. Dena den, helburua ez da jaia egitea. Helburua euskara bultzatzea denez, egitaraua eta jaia bera, horretarako tresna bihurtzen dira.

Noiz eta zergatik hasi zineten Justugune berreskuratzekeo ideari bueltaka?

Aurtengoa, Justugune ospatzen den laugarren urtea izango da. Euskal Txokoaren papera euskal



kultura bultzatzea da; oraindik dirauena bultzatu, eta ahal den heinean, desagertu dena berreskuratzea da gure nahia. Auzo hau duela 35 urte egin zen. Lehen hemengo hizkuntza euskara zen. Orain berriz, euskal

bertxin

Egitaraua

***11etan** meza, Goikoetxe baserriaren atarian. Ondoren, txokolatada eta trikiti saioa.

***13etan** bertsolariak, Tetuane landan: Jon Maia, Oihane Enbeita eta Aritz Lopategi.

***14:30etan** Herri Bazkaria (900 pezeta). Ondoren mus txapelketa, herri jokuak, kantua.

***21etan** erromeria Lotz taldeagaz.

Meza izan ezik, guztia da Tetuane landan.

kultura guztiz menperatua gelditu da. Paradojikoki, Bilbo inguruko leku erdaldunetarikoa batean euskaldun izaera bere naturaltasunean mantentzen da hemen momentuz, bere azkenetan badago ere. Hori da indartu eta bultzatu nahi duguna.

Zein berezitasun dauka Justugunek, adibidez, Otxarkoagako beste jaiekin konparatuz?

Hauek Arbolantzako jaiak dira. Berezitasun nagusia zera da, benetako bertako jaiak direla. Momentuz ez da gehiengoaren jaia izango, baina bai bertoko

rreskuratzekeo ideiarekin hasi ginenetik eta beraien laguntza



ezinbestekoa da. Dena den,



sustraietan oinarritzen dena. Guztien jaia izatea nahi genuke, baina helburu nagusia Justugune euskalgune bihurtzea da.

Nortzuk hartzen duzue jaiaren antolaketaren ardura?

Euskal Txokoa eta Arbolantzako baserri batzuk ere badabilta antolaketa lanetan. Ardura Euskal Txokoak hartzen badu ere, baserriarren jarrera oso positiboa izan da jaia be-

edonoren laguntza ere oso pozik hartzen dugu.

Nork egiten die aurre gastuei? Dirulaguntzaren bat jasotzen duzue?

Ez dugu inongo dirulaguntzarik jasotzen. Euskal Txokoak hartzen du gastuen ardura eta diru sarrera bakarria txosnak ematen duena da. Dena den, gure helburua ez da izugarritzko jai programa egitea, Arbolantzako euskaldunen arteko harremanak estutzea baizik. Jendeak bere benetako jaia dela sentitzea da nahi duguna; umore ona eramatea eta guztiok ondo pasatzea.



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!

gutxira Hamburg-era joango zela esan ziguten. Berekin kontaktuan jarri eta ez zigun arazorik jarri bere trailerrean joateko. Trailerren gehieneko abiadura 90 km/o-ko izanda, bi egun luze behar izan genituen Hamburg-era heltzeko, eta bide batez gidarien lanbidea eza-gutzeko. Bidaia kideak lau ginen eta bik parke handi batean kanpin denda ipini eta bertan lo egin genuen. Beste biek, erosotasun eza-gatik eta beldur pixka bat zutelako (naziak zirela-eta) gazteentzako aterpetxe batean lo egin zuten «Carnet de alberguista» delakoa-ekin; gu baino gehiago gastatuz, noski.

Helburua Berlinera heltzea zenez, bertara abiatu ginen auto stop eginez. Zoratzeko lau ordu itxaron behar izan genituen turkiar-alemaniar batek hirira eraman gintuen arte. Berlinen egonik, skuat edo okupatutako etxez betetako auzo bat zegoela esan ziguten. Bertara txistuak eraman genituen eta zera pentsatu genuen: zergatik ez joan kaleetatik zehar txistua joaz? Ziur bertan euskaldunen bat dagoela eta zerbait esaten digula. Esan eta egin. Auzo horretan minutu gutxi generamatzanean Santanderrekoa zen tipo batek zera esan zigun: Zer, euskaldunak? Guk, aldiz, baietz. Orduan, lo egiteko lekuren bat bagenuen galdetu zigun eta gure ezetza entzutean bere etxeko lagun batzuk aurkeztu eta beren etxera lo egitera gonbidatu gintuzten.

Alemanian igaro genuen hila-betean izan genituen gastu bakkarrak janaria eta egin genituen parrandak izan ziren. Hala ere, gutako batek diru gutxi zuenez, bidaia merkeagotzeko erak aurkitu genituen.

Okupek esan zigutenez, Berlinen Lander-ek behartsuei eskaintako janari banaketa antolatzen zuten. Bezperan denda desberdinetan soberan geratutako pastelak, kafea etab. ematen zieten.

Beraz, gu turista «behartsu»-ak ginela argitu eta gero, askotan gosalduek genuen bertan. Bazkaria ere ematen zuten eta eguerdi askotan bertara abiatu ginen bazkaltzera. Eta egia esateko, nahiz eta aurreko eguneko janaria izan oso janari goxoa zen.

Txistua eraman genuela aprobetxatuz, eta genituen gastuei aurre egiteko asmoz, txistua jo genuen Kurfustedam eta Alexanderplatz enparantza turistikoetan. Horrela bidaia merkeagotu egin genuen.

Itzultzeko garaia zela eta, «auto stop-ez» bueltatu ginen. Oso

gustura nengoenez, besteak baino gehiago «jaietsi» nintzen. Bi egun behar izan nituen Bilbora heltzeko ibilgailu askotan bidaiatu eta gero. Izan nuen arazo bakarra Leipzig eta Saarbrücken tartean izan zen. Bi hiri horien artean dauden ehundaka kilometroak alemanieraz soilik zekien gidari batekin pasatu nituen. Nik hizkuntza horretaz ezer gutxi nekienez, hainbat ordutan gure harremana nahiko samarra izan zen. Beraz, ikus dezakezuenez, bidaiak merke ateratzeaz gain



Kurfustedameko enparantza txistua jotzen aritu ginen

kulturberriak

Haritza Garcia: *Sukoi* musika taldeko bateriajolea

Gure auzoetako jaietan entzuten hasia den izena da *Sukoi*, azken hilabeteetan zenbait kontzertu eskaini baititu deustuarrez eta santutxutarrez osaturiko talde honek. Musika hobby bezala hartzen dute, baina argi daukate musika munduan zerbait izatera heltzea gustatuko litzaiekeela. Honetaz eta taldeko gorabeheraz aritu gara Haritzarekin.

☞ Zuriñe Uriarte

Berton: Taldeko kide guztiak hain gazteak izanik, zenbat denbora daramazue taldearekin?

Talde gisa orain dela urtebete hasi ginen, azkena neu izan naiz, beste hirurak aspalditik ibiliak ziren kantuak egiten baina bateriarik gabe, ni lokalik gabe gelditu zen talde batekin nenbilen eta Jonen bitartez sartu nintzen.

Berton: Zelan defini daiteke egiten duzuen musika? Rock-a, heavy-a akaso?

Musika oso melodikoa, entzuteko erraza eta kañeroa. Estructura klasikoak gogoko ditugu, hau abiaduragaz lotuta, gure Heavy-a bezala defini dezakegu. Egia esan ez dugu ezer berririk asmatu.

Berton: Denok ezaguna da gazteok dugun espazio falta. Zelan konpontzen zarete entsaiatzeko?

Hauxe da oraintxe bertan dugun arazorik handiena, garage itxi batean entsaiatzen dugu San Inazion baina mobidak ditugu bertako tipo bategaz eta hor gabilta ea beste lekuren bat bilatzen dugun. Arazoa da denak garestiegiak direla edo eta jabeek ez dutela nahi entsaiatzeko alokatzea.

Berton: Sukoi santutxuar edo deustuar taldea da?

Sukoi santutxuar bik eta San Inaziotar bik osatzen dugu. Ez dugu zer ikusirik Deustuagaz.



Jaietan eurek deitu ziguten jotzeko ta aukera ona iruditu zitzaigun.

Berton: Zer nolako egutegia duzue udarako? Santutxuko jaietan jotzeko asmorik bai?

Maketa gabe dabilen talde batek normalean ez ditu egutegiak egiten, saltoka ibiltzen da eskaintzen artean, baina uda honetarako baditugu bi edo hiru kontzertu erdi loturik, Bilboko jaietan Kaskagorri konpartsan, adibidez. Auzoan jotzeari dagokionez, ez dakit, eskaini egin digute auzoko taldeen egunean jotzea baina pasa den urtean jo genuen, eta Santutxun egon zen presoen aldeko akanpandan eta ez dugu nahi «txapas» batzuk izatea.

Berton: Zein da taldearen meta? Maketa grabatu, ...

Gure musikari ez diogu metarik ipintzen, zertarako? Ez dago gure

esku disko bat grabatzea, ezta jendeak erostea ere. Maketa bat grabatu nahi dugu aurtengo udarako baina oraindik ez daukagu oso argi non, ez nogaz, ez zelan. Nik neuk nire denbora libre pasatzeko «hobby» bezala ikusten dut eta kontzertuak juergan joateko eta jendea ezagutzeko aitzakia ezin hobe bezala.

Berton: Zein talderekin konpara daiteke Sukoi? Jendeak *Su Ta Garren* influentzia zuzena duzuela dio...

Gure musika entzuten duen edonork esango dizu *Su ta Garren* parekoak garena baina esaten duenak ideia putarik ez duela ere esango dizut. *Su ta Garren* ez du ezer berririk asmatu, bereganatu egin du eta euskaraz ipini, betiko Heavy-tik eboluzionatuz joan baita, gu oraindik heavy klasikoan oinarritzen gara, ez *Su ta*

Gar-en abestietan, *Su ta Gar-i* inork ez dio esaten bere musika *Pantera, Hellowen, Iron Maiden* edo beste talde batzuen antzeko denik, guri osteria bai.

Berton: Zelan ikusten duzue euskal musikaren egoera? Irteerarik ba al dago zuen moduko taldeentzat?

Euskal musika beti izan da oso aberatsa bai estiloetan, bai taldeetan, horregatik dago konpetentzia bizia disko bat ateratzeko. Nire ustez hau oso ondo dago eskaria eta eskaintzaren artean beti ateratzen direlako talde interesgarriak.

Gurè moduko hamaika talde daude auzo, hiri eta herri bakoitzean eta gainera inolako laguntzarik gabe aurrera egiten, hauek guztietatik disketekek aukeratzen dituzten laurek egingo dute aurrera, besteak usteltzen diren bitartean. Pena da talde bikainak daude hor zehar inoiz entzungo ez ditugunak musikaren industria beste negozio bat besterik ez delako.

Berton: Zein leku izango zenukete gustuko kontzertu bat emateko, eta zein beste talderekin?

Niretzat edozein auzotako edo herritako jaietako eszenarioak nahikoa dira, baina ondo egongo litzateke orain desagertuta dauden Santutxu edo Bilboko gaztetxeetan jotzea, edozein talderekin batera, hobe eza-gunak badira jende gehiago etortzeko, baina ez da beharrezkoa.



Jatorki abesbatza Karmelo eleizan

Marian Urkiolaren zuzendaritzapeko Jatorki Abesbatsak bere 25. Urteurrena ospatzeko kontzertua eskaini zuen uztailaren 17an. Berton abesbatsa honetako zuzendari izandako Andoni Arregiren omenez kantatu zuten.

PLT Santutxuko jaietan

Uztailaren 17an PLT musika taldeak kontzertua eskaini zuen Basarraten. kontzertua baino lehen haiekin egon ginen Santutxuko jaietan.

Zelan definitzen duzue egiten duzuen musika mota?

Definitzeko nahiko zaila da, estilo asko nahasten ditugu, bai kaña eta bai estilo lasaia. Estilo bat esatearren kaña eta lasaiaren arteko nahasketak bat esango genuke.

Kontzertu bat baino lehen zein izaten da kontzertu aurreko giroa?

Goizetik heltzen gara herrietara eta gero gauza guztiak montatzen ditugu eszenatokian eta ordu eta erdi edo bi orduko frogatxo bat egiten dugu soinuak eta konprobatzeko. Gero pote batzuk hartu, afaldu eta kontzertura. Geroago batzen digutu katxarro guztiak eta lokalera joaten gara. Berto deskargatu eta



6etan edo 7etan etxera bueltan. **Zelan ikusten dituzue Santutxuko jaiak?**

Duela hiruzpalau urte egon ginen eta nahiko auzo erakarria iruditzen zait, giro ona dago eta jende jatorra ere bai.

Festarik festa nabil ni egunero...

Oraingo zenbaki honetan parrandistentzako opari berezia dakargu. Hemen dituzue Bizkaian abuztu-irailean egingo diren jai nagusiak. Ondo ibili, eta bueltak amari (balego).

- Abuztuak 1: ERROMO (GETXO).
- Abuztuak 1: ZALLA. San Pedro.
- Abuztuak 4: GASTEIZ. Andra Mari Zuria.
- Abuztuak 5: GORLIZ. Andra Mari.
- Abuztuak 5: LANESTOSA. Nieves.
- Abuztuak 6: TRAPAGA.
- Abuztuak 8: JUSTUGUNE. Tetuaneko landan.
- Abuztuak 10: ASTRABUDUA. San Lorenzo.
- Abuztuak 10: ZARATAMO. San Lorenzo.
- Abuztuak 10: KAI ZAHARRA (GETXO).
- Abuztuak 15-23: BILBO. Aste Nagusia.
- Abuztuak 15: BAKIO. Karmengo Jaiak.
- Abuztuak 15: GERNIKA. Andra Mari.

- Abuztuak 15: IGORRE. Andra Mari.
- Abuztuak 15: LARRABETZU. Andra Mari.
- Abuztuak 15: MUNDAKA. Andra Mari.
- Abuztuak 15: ONDARROA. Andra Mari.
- Abuztuak 16: BALMASEDA. San Roke.
- Abuztuak 16: BERMEO. San Roke.
- Abuztuak 16: GERNIKA. San Roke.
- Abuztuak 16: PORTUGALETE. San Roke.
- Abuztuak 17: GERNIKA. San Roke.
- Abuztuak 28: BAKIO. San Juan Dolosa.
- Abuztuak 28: ERANDIO. San Agustin.
- Irailak 2: LEKEITIO. San Antolin.
- Irailak 2: OROZKO. San Antolin.

- Irailak 2: PLENTZIA. San Antolin.
- Irailak 6: LEKEITIO. Antzar Eguna
- Irailaren Lehen Igandea : ELORRIO. Azoka eta martxa.
- Irailak 8: BERMEO. Andra Mari.
- Irailak 8: ELORRIO. Andra Mari.
- Irailak 8: KARRANTZA. Andra Mari.
- Irailak 8: LEZAMA. Andra Mari.
- Irailak 8: UGAO. Andra Mari.
- Irailak 9: BERMEO. Arrantzale Eguna.
- Irailak 14: GALDAKAO. Gurutze Santua.
- Irailak 24: LAS MERCEDES (GETXO). Mercedes.
- Irailak 25: GORDEXOLA. San Kosme eta San Damian.



ISALAND

PROIEKTU ETA ERREFORMAK

Fika, 54 - Telefonoa: 94-4334781

48006 Santutxu - BILBO

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22

HOROSKOPOA

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra. txokolátezkoak kendu eta bainilazkoak inoz baino gehiago jan? Eutsi horrerri! Baina gero ez inori errurik bota!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. beharrea ilargian, oporretan ilargian... ia houston, noz hartzen dauan lur, ze MIR-a baino galduago zabiltz!

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. aaaa! Urtean zehar bai, oporretan hau egingo dot, bestea egingo dot... eta oin zer? Lehen alperra zana...

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra. joan zan urtebetetzea baina ez egin oindino negarrik! Datorren urtean barrero egingo da eta bitartean, bizi ederto!

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. santutxukoan ostean erdi tontotuta oindinokarren? Justugune hor dago, Bilbokoak be bai... Eta etxe barruko gauzak egiten hasi azkero be, zer?

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra. betiko moduan jarraitzen dozu, erreka ertzean begira... bainurik hartu ezean ez dozu jakingo zelan dagoan ura.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra. ia ba, hartu bainu jantzia eta lasai itzun hondartzan, bizitzak momentu txiki horreitan dauka gozamenik handiena, halandaze, trankildu motorra, txo!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra. Dio! Hau leiduntako bizi zara edo? Behingoan agertu zara, ala jadanik barrero desagertuta zagoz? Aaai! Ez balego irailik, bizi zareanik be ez genduke jakingo.

Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra. maletak prest eta denpora osoan atzera begiraa? lasai, dana itxi dozu, atepak, leihoak, ez da inor sartuko eta arrainak ez jatzuz hilko. Zoaz behingoan oporretan!

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Badakizu bai, nonor, nonon, zure telefono dei horren zain daukazula, baina ez bazara espabiletan... uda arriskutsua da. Tira, ez esan abisatu ez zaituenik, gero!

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Iraila urrun dago oindino! Neguan damutzen ibili baino, hoba oin aprobetxatu eta azken jaien ostean prestatuko dozu behar diran guztiak. Oin, urten etxeti eta ez agertu aste betean.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Ondo dago uretako zeinua izatea baina konturatu zara ezkatat urten jatzuzala? Ezetz? Ba kontuz bolanta sareren batean jausi barik.

HIEROGLIFIKOA

3,1416....
HITZA
TONA

Santutxuko jaietan..
AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA:

MISIOLARI

.....
BERBA JOKUE

Asmaixu Begoñeko berbok zer esan gure daurien:

a. Batana	Kupela
b. Ausiki	Berandu
c. Sorotzi	Basauri
d. Belu	Mendafina
e. Tiñekue	Geratu
f. Biribieta	Lagundu
g. Lotu	Koxka

Lehiaketaren irabazlea:

Aurreko zenbakian agertu zen argazkia, antzina gaur egungo Karmelo eta Luis Luziano Bonaparte kaleen kantoian zegoen Organo fabrika zen. Hil honetako afariaren irabazlea hau da:

Amaia Larrauri Abril

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Sorta hau kartzelan idatzi eban, Durangoko bertso paper lehiaketara bialdu eta baita lehenengo saria irabazi be. ZORIONAK TASIO eta eutsi, dedioooo!

Eraso larriak, baina ez barriak

Doinua: «Begira nago jarria beraz»

- | | | |
|---|---|---|
| <p>1
Gure herrian, aspaldikoa da kultura arazoa, gaztelera ta frantsesarentzat ei gara enbarazoa. Espainoltzale amorratuek jaurtirik dute lazoa, libre dabil marrazoa. (bir) Euskera berriz, ezin bizirik burumakur da gaixoa, azken boladan, alde orotik jasotzen du eraso. (bir)</p> | <p>5
Ikerkuntzak du erran zorrozki: ez zuten hautsi legea eta aitzitik, euskalduna zeu eskubiderik gabea. Mintzatzea zen udalekuen helburu ta zutabea, jakitun zen nerabea. Erasotzaile guzti horiek ez daude ados ordea, euskerabako Euskal Herria delako euren xedea.</p> | <p>9
Gero arbitro bati euskeraz mintzatu jokalaria, gernikarrari zuzen zioten atera txartel horia; Euskal Herrian jokatzan zuten halere horra saria, gogorra bezain argia. Bada zabaldu denez geroztik pozik dago ehiztaria, orain gu gara harrapakina gora euskal safaria!</p> |
| <p>2
Euskal kultura ezabatzeko batzuek daukate bula, besteok berriz pekatu zaharra bizkargainean dugula; ez da berria, baina gaurkoa dugu eraso mardula: iraina dute formula, asmatzen dute hemen eta han bildurrezko pelikula, gertatzen ari zaiguna ez da ahuntzen gaueko eztula.</p> | <p>6
Eraso bide berritarako azken modako aukera, «Humanidades» dekretua da hemen hurrengo atera. Aipatu ahala zabaldu da haserrea ta minbera, jokuan da izaera! Nork ukatzen du oinarritzkoa dugula gure hizkera? horrexek sortzen, bermatzen baitu herri sena, pentsakera.</p> | <p>10
Epaitegian bertan ere da egunero bazterturik, epaile multzo horrek ez baitu jarrera aurrerakoirik. Abokatuek gure hizkuntza ez daukate mintzaterik, ez dute eskubiderik! Nahiz ta Nekane San Migel dugun zerbaitetan ausarturik, ez al duzue bera ikusten jadanik kondenaturik?</p> |
| <p>3
Udan hasita behin ta berriro «ABC»-ko notizia, «El Pais» eta «Correo»-k gero damaiote garrantzia. Lau haizetara zabaldu dute salaketa garrasia, sortuz giro nahasia, helburu dute bideratzea jendearen iritzia: Euskal Herrian Euskerak sortzen duela injustizia.</p> | <p>7
Handik gutxira Txurdinagako eskolan da presioa, zenbait tokitan betetzen baita gurasoen desioa. Maisu-maestrek beregain hartuz gogotik ofizioa, bikaina inbentsioa! Heziketan da euskara hutsez egiten transmisioa, horien aurka laister altxatu zaigu inkisizioa!</p> | <p>11
Eraso bortitz hauen aurrean nahi nuke azaleratu: euskaltzaleon epelkeriak guztiz nauela kezkatu. Geure hizkuntza defendatzeko ezin ote gara batu? Erasok kaleratu? Zenbait irrati ta telebisten jarrera beltza salatu? Agintarien koldarkeria ezin baita ezkutatu.</p> |
| <p>4
Lehen helburua Zeanuriko umeen udalekua, dirudienez berriro ere betikoek pekatua. Haurrek euskeraz egin dezaten motibatze jokua ei da madarikatua! Muntaia hori goitik beheraino dago ongi pentsatua: euskal ametsak izan behar du nolnani oztopatua.</p> | <p>8
Erasotuen kate luzean hurrengo da AEK, aztertu nahirik euskaltegian prestatu den bahiketa. Erderazale amorratuek prestu dute eskopeta, gibelaldean kolpeka. Horretarako «terrorismoa» da modako etiketa, euskal hiztunak arriskutsuak berez omen gara-eta!</p> | <p>12
Euskal Herriak Euskera dauka eta larrosak arantza, eta nik berriz hori horrela izango den esperantza. Erasotaz jende ugari ohartzan baitabil antza, gure alde da balantza. Ongi zorroztu aizkora eta joko dugu aurrerantza, Jon Sarasuak dioen legez: «Izan Autokonfidantza».</p> |